# NAhitA

Abril 2016ko Apirila
Nº 28.zbk

Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailaren argitalpena Publicación del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Ermua



%100 paper birziklatua. Kloro eta zuritzaile optikorik gabea.
Papel 100% reciclado. Sin cloro ni blanqueantes ópticos.

>>

## ERMUKO MARTXOAREN 8A PLAZA

## TEJIENDO IGUALDAD.

## PLAZA 8 DE MARZO DE ERMUA

>>

## ERREPORTAIA · REPORTAJE

## "KAPELA GABEKOAK"

## LAS "SINSOMBRERO"

# >> PROGRAMA ´ESCUELA DE EMPODERAMIENTO´
# >> ´JABEKUNTZA ESKOLA´ren EGITARAUA

## BARNEAN DARAMAGUN UMEA ONARTZEKO TAILERRA (15 ORDU) / TALLER ACOGER A NUESTRA NIÑA INTERIOR (15 HORAS)

Del 21 de abril al 19 de mayo. JUEVES de 17:00h. a 20:00h.
Irakaslea: Patricia Verdés · **Matrikula: 5 Euro**

**Barnean daramagun umearekin kontaktatzea eta umetxo hori onartzea gure buruarekiko maitasun-harremanaren hasiera (edo jarraipena) izango da: geure buruarekiko emozioak eta usteak eguneratu, garai batean finkatuta geratu ziren harremanak eta mundu hura gaurkotu, gure izaeraren egiazko zentzua berrezarri, maskarak kenduz eta umetan baztertzen ikasi behar izan genituen alderdi haiek berreskuratuz; geure buruaren zaintzaren garrantziaz jabetu eta emakume bakoitzarengan integrazio eta osasun hobea suspertu.**

Contactar y acoger a nuestra niña interior supone el inicio (o la continuación) de una relación amorosa con nosotras mismas; actualizar las emociones y creencias sobre una misma, las relaciones y el mundo que quedaron fijadas en un momento dado. Restaurar el sentido auténtico de nuestro ser, desechando máscaras y recuperando aquellas facetas que la niña tuvo que aprender a rechazar, facilitar nuestro cuidado y fomentar una mayor integración y salud en cada mujer.

**Quienes se apunten a estos dos talleres el sábado día 21, sólo abonarán una matrícula**

## HILEKOAREN ARTEA TAILERRA (4 ORDU) / TALLER DE ARTE MENSTRUAL (4 HORAS)

El 21 de mayo. SÁBADO de 10:00h. a 14:00h.
Irakaslea: Ainhoa Aldazabal (Skolastika) · **Matrikula: 5 Euro**

**Ikastaro honetan hilekoa nola irudikatu den literaturan eta artean ikusiko dugu, performanceetatik hasi eta kaleko karteletara arte, argazkigintza, pintura, ilustrazio eta abarretatik iraganez. Emakume artistak bisibilizatuko ditugu, beraien izenak ikasi eta obrak ezagutu eta gozatuko ditugu, beraien aldarrikapenak eta ezaugarri komunak identifikatzeaz gain.**

En este taller veremos cómo la menstruación ha sido representada en la literatura y el arte, desde el performance hasta los carteles que vemos en la calle, pasando por la pintura, ilustración, etc. Visibilizaremos a las mujeres artistas aprenderemos sus nombres y conoceremos y disfrutaremos de sus obras; identificaremos sus reivindicaciones y sus características comunes.

## TUPPERSEX (2,5 ORDU) / TUPPERSEX (2,5 HORAS)

El 21 de mayo. SÁBADO de 17:30h. a 20:00h.
Irakaslea: Inma Merino · **Matrikula: 5 Euro**

**Ikastaro honetan sexualitatearen inguruko sineskeriak eta arauak apurtzen ikasiko dugu, sexualitatea koitoa eta sexua baino gehiago delako, eta pertsonen arteko harremanekin, erakartzeko, erotizatzeko edota guk besteei egitea eta besteek guri egitea gustatuko litzaigukeenarekin amets egiteko moduarekin lotuta dagoelako. Nire gorputzarekin, autoestimuarekin, gure buruaren zaintzarekin zerikusia du…, nire sexualitatea nire ongizate fisiko eta emozionalaren zati delako.**

Este taller nos da la posibilidad de poder romper reglas y creencias sobre la sexualidad, porque la sexualidad no es solo sexo y penetración, tiene que ver con las relaciones entre personas, la manera de seducirnos, de erotizarnos, de fantasear con lo que me gustaría hacer y me gustaría que me hicieran. Tiene que ver con mi cuerpo, mi autoestima, el autocuidado… porque mi sexualidad forma parte de mi bienestar corporal y emocional.

## PRESTAKUNTZA-ETA PARTAIDETZA-GUNEA ESPACIO DE FORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN

**BESTELAKO EKINTZAK / OTRAS ACTIVIDADES**



**KULTUR IRTEERA / SALIDA CULTURAL: ekainak 18 / 18 junio.**

BERDINTASUNEKO UDAL KONTSEILUA CONSEJO MUNICIPAL DE IGUALDAD · ELKARTEAK ASOCIACIONES · SOLASALDIAK ETA ERAKUSKETAK TERTULIAS Y EXPOSICIONES · HITZALDIAK CHARLAS · ESPACIO DE CREAKTIVIDAD... ETC. · ETA ABAR

Galdetu Emakumeen Topalekuan eta PARTE HARTU! Pregunta en la Casa de la Mujer y ¡PARTICIPA!

Más información / Informazio gehiagorako: http://www.ermua.es/pags/igualdad/ca_espacio_formacion.asp

Teléfono y correo electrónico de la Casa de la Mujer / Emakumeen Topalekuko telefonoan edota posta elektronikoan:
Tfnoa: 943 17 10 30 · e.posta: igualdad2@udalermua.net

# Editoriala

Apirilari errepublikaren hilabetea deitzen zaio, batez ere hurbilen daukagun inguru honetan, Eibar hartzen delako duela 85 urte II. Errepublika aldarrikatu zeneko lehen herritzat. Ohikoa denez, ez da asko aipatzen gure historiaren zati horren bilakaeran, hainbat fronte eta borrokatan, emakumeek izan zuten garrantzia, eta horregatik ondo merezitako omenaldi bat egin nahi izan diegu Emakumeen Topalekuan Balendiñe Albizu, Sara Berenguer, Ernestina de Champourcin, Rosa Chacel, Ángela Figuera, Gloria Fuertes, María Teresa León, María Mercé Marçal, Concha Méndez, Lucía Sánchez, María Zambrano eta beste batzuek bezalako emakume olerkari eta intelektual batzuei, haien oroimenez hainbat jarduera antolatuz.

Gure historiaren urte ilun haietan emakume, errepublikar eta olerkari izatea hiru arrazoi ziren "jazarriak", "ahaztuak" edo, gehienez ere, "…ren emazteak" izateko. Hala ere, emakume haiek, beraien olerki eta borrokazko bizitzarekin, gure memoria eta historiaren kapitulu garrantzitsua idatzi zuten, eta ez dugu hori ahazterik nahi, horregatik beraien obrak irakurri eta ber-aurkitzera animatzen zaituztegu, 1962an "Toco la tierra. Letanías" liburuan argitaratutako Ángela Figuera Aymerichen olerkiaren hasiera bezala gaur gaurkoak direnak.

Ez, ez dugu nahi iparraldeko jendeak noizbait hegoalde izan zirela ahaztea, ezta itsasoak hilerri bihurtzea edota emakumeak asasinatzea, ez eta beraien gorputzak gudu-zelai bihurtzea edota neskato-mutikoak, beraiekin trafikatzeko, desagerraraztea, ezta ere jende ustela zigorrik gabe geratzea eta beldurrak gure ahotsa isilaraztea… Apirileko euriak lotsa eta gezurrak garbi ditzala nahi dugu, udaberriak aurrera egin ahala ateak irekiaraz ditzagula laster hemen den uda ospatzeko. Emakume aske izan nahi dugu, kapela eta kortserik gabe, haiek bezala.

A abril se le suele llamar el mes de la república, especialmente en nuestro entorno más cercano, por considerarse Eibar el primer municipio en el que se proclamara la segunda, ahora hace 85 años. Como suele suceder, no se habla mucho del importante papel que las mujeres cumplieron en el devenir de esa parte de nuestra historia, en frentes y luchas variadas, y por eso les hemos querido brindar un merecido homenaje, dedicando -en la Casa de la Mujer- varias actividades a la memoria de las mujeres poetas e intelectuales: Balendiñe Albizu, Sara Berenguer, Ernestina de Champourcin, Rosa Chacel, Ángela Figuera, Gloria Fuertes, María Teresa León, María Mercé Marçal, Concha Méndez, Lucía Sánchez, María Zambrano, … y otras más.

Ser mujer, republicana y poeta, en los años oscuros de nuestra historia, fue poseer una triple condición que les convertía en "perseguidas", "olvidadas", como mucho "las esposas de…". Sin embargo, estas mujeres escribieron con sus vidas de lucha y su poesía un importante capítulo de nuestra memoria e historia, que no queremos dejar caer en el olvido y que os animamos a re-descubrir con la lectura de sus obras, tan actuales como el inicio del poema de Ángela Figuera Aymerich, publicado en 1962 en el libro "Toco la tierra. Letanías", y que no necesita de más interpretación.

No, no queremos que la gente del norte se olvide de que fueron sur, ni que los mares se conviertan en cementerios, ni que asesinen a las mujeres o conviertan sus cuerpos en campos de guerra, ni que hagan desaparecer niñas y niños para traficar con ellos, ni que la gente corrupta quede impune, ni que el miedo acalle nuestra voz… Queremos que las lluvias de abril barran la vergüenza y las mentiras, que avance la primavera y nos haga abrir las puertas para celebrar el verano que ha de llegar. Queremos ser mujeres libres, sin sombrero ni corsé, como ellas lo fueron.

***NO QUIERO***

*No quiero*
*que los besos se paguen*
*ni la sangre se venda*
*ni se compre la brisa*
*ni se alquile el aliento.*
*No quiero*
*que el trigo se queme y el pan se escatime.*
*No quiero*
*que haya frío en las casas,*
*que haya miedo en las calles,*
*que haya rabia en los ojos.*
*No quiero*
*que en los labios se encierren mentiras,*
*que en las arcas se encierren millones,*
*que en la cárcel se encierre a los buenos.*

# >> EZAGUTZEN AL DUZU...? ¿CONOCES? <<

## BIZKAIKO "EMAN ESKUA" ETA DEBABARRENEKO "DEFIBEL" FIBROMIALGIA ETA ASTENIA KRONIKOEN ELKARTEAK

## ASOCIACIONES DE FIBROMIALGIA Y ASTENIA CRÓNICA, DE BIZKAIA (EMAN ESKUA) Y DEBABARRENA (DEFIBEL)

La fibromialgia es una enfermedad de las llamadas raras por su baja prevalencia (menos de 5 por 10.000 hab.). Se caracteriza por los dolores fibromusculares y la rigidez que se siente en amplias zonas del cuerpo, y llega a afectar enormemente a la calidad de vida de quien la sufre. Es mucho más frecuente en mujeres que en hombres (proporción aproximada de 1 a 10) y, aunque puede sobrevenir a cualquier edad, se desarrolla en una horquilla que abarca de los 30 a los 60 años.

Hein batean bakarrik erantzuten die tratamendu aringarriei, sintomarik gogaikarrienak -mina, loaren gorabeherak edo nekea esate baterako- neutralizatzera zuzenduak, baina kroniko izatera daraman bilakaera du, jasaten duen pertsonaren gizarte- eta familia-bizitzan negatiboki eraginez.

A veces, el entorno social y el personal médico no entienden la enfermedad y llegan a negarla, lo cual acrecienta el sufrimiento de las personas afectadas.

Tal vez por eso, han ido tejiendo una red de asociaciones sin ánimo de lucro que tienen como objetivo favorecer y posibilitar un clima social e institucional más sensible y solidario respecto a la enfermedad. Las dos asociaciones más cercanas a nuestro municipio son DEFIBEL (Eibar) y EMAN ESKUA (Bizkaia).

Helburua FM eta AK gaixotasunek jotako pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da, beraiek eta beraien familiek behar dituzten zerbitzuak eskainiz eta dituzten eskubideak defendatzen lagunduz. Beste helburu garrantzitsu bat biztanleria sentsibilizatzea da eta gaixotasun hau ezagutzera ematea, maiatzaren 12an bere nazioarteko eguna ospatzen delarik.

De momento, es una enfermedad sin cura, por lo que las asociaciones se centran en facilitar estrategias adecuadas para hacerle frente de forma activa y positiva, siempre bajo la dirección de profesionales: charlas, encuentros, actividades lúdicas, rehabilitación acuática, yoga…etc.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

**DEFIBEL: Andretxea, Zezenbide 9, bajo dcha. Eibar.**

**Tfn. 648 977 587 / 943 700 828 · asoc.defibel@gmail.com**

**EMAN ESKUA: C/ Principe nº 5 - Dpto 701. Bilbao**

**Tfn: 944 750 393 / 609 978 469 · www.emaneskua.com**

# TRUKE EGUNAK
# DÍAS DE TRUEQUE




Esta es una nueva actividad de intercambio que se puso en marcha en diciembre de 2015 para sensibilizar a la población sobre la importancia de un consumo responsable, del respeto por el medio ambiente, de la necesidad de reutilizar los objetos y del valor del desarrollo sostenible, entre otros.

Horrez gain, adinez, jatorriz eta abarrengatik ezberdinak diren emakumeen arteko elkartrukea eta topaketa errezten ditu.

Cada dos meses, en la Casa de la Mujer, se organiza durante dos semanas un espacio de trueque para el intercambio de objetos, sin dinero, ni pagos ni cobros. Básicamente se trata de que la gente entregue desinteresadamente objetos que ya no utiliza pero que están en buen estado de uso y de limpieza, donándolos para este programa, sin obligación de contraprestación. Podrán cambiarlos por los que hayan traído otras personas "donantes".

Orain arte, zapiak, diskak, pelikulak eta liburuak trukatu dira. Eta apirilean elkartrukatzeko objektuak poltsak izango dira.

Truke hauetan parte hartzeko izena eman beharra dago; izen-ematea lehen dohaintzarekin batera egingo da, pertsona berak egiten duen dohaintza bakoitzean eguneratuko delarik. Trukea egiteko eskubideak programa bereko beste objektu eta erakusketa batzuetarako ere balio du. Emakumeen Topalekuan programaren oinarrizko baldintzak daude eskuragarri. Ermuan bizi ez direnek herrian bizi direnen baldintza berberetan parte hartu ahal izango dute programan.

No se recoge ningún otro objeto que no sea el previsto para cada ocasión, ni los que estén en mal estado. Tras el cierre de cada trueque, los objetos que no hayan generado interés se depositan en alguno de los contenedores de reciclaje y/o se entregan a alguna asociación sin ánimo de lucro para su reutilización o reciclaje final.

Programarekiko zure iradokizunak eta komentarioak helarazi dizkiguzu, baita zure proposamenak ere, objektuak etorkizunean trukatzeko.

**Informazio gehiago nahi izanez gero, edota parte hartzeko:**

**Casa de la Mujer - Emakumeen Topalekua**
**Izelaieta kalea 12, 48260 Ermua**
**Tfnoa. 943 171 030 · igualdad2@udalermua.net**

>> 27KO BELAUNALDIKOEN ARTEAN ERE EMAKUME HANDIAK IZAN ZIREN; AINTZATESPENA, BAINA, GIZONEZKOENTZAT IZAN ZEN (BATZUEK GAINERA, BERAIEN LANKIDE-EMAKUMEENGANAKO AURREIRITZI MATXISTA UGARI AGERTU ZITUZTEN).



# “KAPELA GABEKOAK” EMAKUME ARTISTAK, INTELEKTUALAK ETA IRAULTZAILEAK

# LAS “SINSOMBRERO”: MUJERES ARTISTAS, INTELECTUALES Y REVOLUCIONARIAS



La Historia se ha escrito siempre en masculino, dejando al margen o en segundo plano a las mujeres, invisibilizadas, pero no por ello inexistentes.

El año 1927 está asociado en España a la denominada *Generación del 27*, una fecunda generación de artistas e intelectuales del siglo XX. Los hombres que la integraban, Federico García Lorca, Luis Buñuel, Salvador Dalí, Rafael Alberti o Luis Cernuda, han gozado de gran reconocimiento y popularidad, nacional e internacional. No así las mujeres.

## HAIEK BAINO LEHENAGO
## ANTES QUE ELLAS

Antes que ellas, otras mujeres lucharon con valentía, inteligencia y coraje por los derechos de la mujer en una España que las condenaba a la mediocridad. **Victoria Kent, Margarita Nelken, María de Maeztu, Clara Campoamor, María Lejárraga, María Goyri y Carmen Baroja** fueron eje central de una conciencia feminista que facilitó el camino a las que llegaron posteriormente.

Haien ondareari esker, beraien ikaslerik nabarmenenak amatasun eta emazte eginkizunetara mugatzen zituen kortse intelektual eta sozialetik askatu ziren urte batzuk beranduago, 20 eta 30 urteetako Espainiako kultur eta intelektual bizitzan konplexurik gabe parte hartuz.

No todas fueron escritoras: hubo pintoras, como Maruja Mallo, o escultoras, como **Marga Gil. María Zambrano, Ernestina de Champourcín, Concha Méndez, Josefina de la Torre, María Teresa León, Ángeles Santos, Remedios Varó, Marga Gil Roësset, Rosa Chacel…**y otras.



La Casa de la Mujer de Ermua les ha dedicado una serie de actividades en el mes de abril y dispone de bibliografía sobre el tema.

Gehiago jakin nahi izanez gero:
http://www.lassinsombrero.com/
https://www.facebook.com/lassinsombrero?ref=hl
https://twitter.com/lassinsombrero
O explorando el WEBDOC Las Sinsombrero

Talentu handiko emakume sortzaileak, Espainiako arteetan eta pentsamenduan oihartzun handia izan zutenak eta zenbait kasutan, gainera, beraien lana atzerrian ekoizten zutelako-edo, nazioarteko artisten estilo eta generoetan ere eragina izan zuten.

Gizonen kasuan ez bezala, berdintasunaren aldeko borrokak elkartu egiten zituen, sorkuntza-espazio, -ideia, -bizipen eta -prozesu sortzaileak partekatuz.

## KONPONDU EZ DEN AHANZTURA, HISTORIA OSAGABEA
## UN OLVIDO NO REPARADO, UNA HISTORIA INCOMPLETA

Tras la Segunda República, la guerra civil española cercenó aquella explosión de creatividad y -en el caso de estas mujeres- supuso también su condena al olvido. Zentzu horretan, bi arrazoirengatik izan ziren gerraren biktima: gehienak atzerrira joan behar izan ziren edota bertan geratu, baina isilik mantentzen zituen Espainia batean emakumearen betiko rola berriz onartuta, lortutako posizio eta eskubideetatik aldenduta eta beraien memoria ahazturik.

Reconstituida la democracia, los nombres de sus colegas masculinos fueron recuperados y ensalzados, mientras que los de ellas permanecieron en silencio, perdiendo su lugar, de pleno derecho, dentro del relato oficial de esta época histórica. A algunas se les ha brindado finalmente el reconocimiento de su talento y aportación, tarde, y nunca suficiente. Porque sin todas ellas, la historia no está completa.

## ZERGATIK “KAPELA GABEKOAK”?
## ¿POR QUÉ “LAS SINSOMBRERO”?

En su libro *Las Sinsombrero. Sin ellas, la historia no está completa*, Tània Balló escribe “llevar sombrero era, tanto para los hombres como para las mujeres de las clases pudientes, un signo de jerarquía social”. El origen del *movimiento sinsombrerista* se inicia en la década de los años 30; el hito lo marca una anécdota muy contada que explica cómo un día Lorca, Dalí, Margarita Manso y Maruja Mallo, se quitaron el sombrero paseando por la Puerta del Sol de Madrid, y fueron objeto de toda clase de insultos. Se dice que fue el primer acto público de esta tendencia rebelde, subversiva, que fue muy simbólica e importante en su época.

TVE emitió en 2015 un documental sobre el tema que recomendamos visionar.

Tania Ballók bere “Las Sinsombrero. Sin ellas la historia no está completa” liburuan ahaztutako emakume horietako batzuk berreskuratu ditu. Liburua Serrana Torresek eta Manuel Jiménez-Nuñezek egindako dokumental baten ondorioz sortu zen, 2015ean TVEk izen berarekin eman zuena.

http://www.rtve.es/alacarta/videos/imprescindibles/imprescindibles-sin-sombrero/3318136/

## NORTZUK ZIREN?
## ¿QUIÉNES ERAN?

En el mismo libro aparecen las referencias de **Margarita Manso**, pintora rompedora, a la que García Lorca dedica su poema *Muerto de amor*;



**Marga Gil Roësset**, escultora, ilustradora, poeta, que se suicidó a los 24 años, parece que por estar enamorada de Juan Ramón Jiménez, un hombre casado; **Concha Méndez**, poeta, novia de Luis Buñuel durante casi siete secretos años y mujer de Altolaguirre; la pintora surrealista **Maruja Mallo**; la también pintora y artista gráfica, **Ángeles Santos**; la conocida filósofa **María Zambrano; María Teresa León** y **Rosa Chacel** grandes escritoras; la poeta **Ernestina de Champourcin** y la actriz **Josefina de la Torre**. Todas grandes.

Merece la pena acceder a sus biografías para descubrir sus perfiles, fascinantes y muchas veces sorprendentes. Beraien bizitza eta obren ezagutza falta horregatik beharrezkoa da, eta ongietorria gainera, hori guztia berreskuratzea eta hedatzea helburu duen edozein ekimen. Horrek emakume haiek, askeak eta berdinak, ezagutzen lagunduko digu eta haietako gehienen gainean lauza bailitzan eroritako isiltasuna jasotzen. Ezinbestekoa da, guretzat eta etorkizuneko belaunaldientzat, emakume haiek ikusaraztea, justizia egitea, beraien memoria berreskuratzea eta osatzea; beraiena eta *ahaztutako emakume* guztiena.

## Aldarrikatzeko eta ospatzeko egunak
## Días para celebrar y reivindicar

* 26 abril, apirilak 26, Día de la visibilidad lésbica
* 12 mayo, maiatzak 12 Fibromialgiaren nazioarteko eguna
* 17 mayo, maiatzak 17 Día internacional contra la homofobia, transfobia y bifobia.
* 28 mayo, maiatzak 28 Emakumeen osasunerako nazioarteko ekintza eguna
* 28 junio, ekainak 28 Día internacional del Orgullo LGTB

# KALE INKESTA

## Preguntas
## GALDERAK

**1** **Ba al dakizu Tuppersexa zer den? ¿Parte hartu al duzu halako batean inoiz?**
¿Sabes lo que es un Tuppersex? ¿Has participado en alguno?

**2** **Zertarako dira erabilgarriak bilera horiek: ikasteko eta informazioa izateko ala ondo pasatzeko eta sexu-jostailuren bat eskuratzeko?**
¿Para qué sirven estas reuniones: para aprender e informarse o para divertirse y adquirir algún juguete sexual?

**3** **Zuk zer uste duzu: gure autoestimua eta ongizatea garatzera eta gure askatasuna errespetatzera bideratuta egon beharko liratekeela?**
¿Crees que deben tener un enfoque que respete nuestra libertad y desarrolle nuestra autoestima y bienestar?

**4** **Gomendatuko zenuke mota horretako bileretan parte hartzea?**
¿Recomendarías participar en este tipo de reuniones?

### JUDITH LAIZ GONZALEZ
**50 AÑOS**

1. Más o menos. No, nunca.
2. Para todo, para aprender, para divertirse... y para comprar algo también.
3. Desde luego, el enfoque es muy importante.
4. Sí. Yo voy a ir al que organiza la Casa de la Mujer en mayo.



### IRUNE MUGERTZA IDIGORAS
**60 URTE**

1. Bai, behin.
2. Ikasteko, eta teknika eta produktu interesgarriak ezagutzeko ere bai.
3. Bai, badu gure buruaren zaintzarekin zerikusirik.
4. Dudarik gabe.



### MAITE PIÑEIRO MORÁN
**54 AÑOS**

1. Sí, asistí a un taller.
2. Para aprender, pero también resultan muy divertidos; merece la pena.
3. Totalmente.
4. Sí, ya lo he hecho.



### JAEL SANTAELLA PINTOR
**18 URTE**

1. Bai, jostailu erotikoak ezagutzeko dira. Ez, inoiz ez.
2. Gauza berriak ikasteko, entretenitzeko.
3. Bai, bestela ez nintzateke joango.
4. Bai, seguruenik bai. Zergatik ez?



# EMAN BUELTA BETIKO IPUINEI, "ROLAK" ETA ESTEREOTIPOAK ALDATUZ!



# ¡DALES LA VUELTA A LOS CUENTOS DE SIEMPRE, Y CAMBIA LOS "ROLES" Y ESTEREOTIPOS!

**Denborapasa berri bat proposatzen dizugu: ipuin klasiko bat berridaztea, amaiera aldatzea….**
**Jasotako ipuinekin erakusketa bat antolatuko dugu Emakumeen Topalekuan.**
**Sariak banatuko ditugu! Anima zaitez!**

*Behin batean ba zen baserriko neskato bat; amonak egindako txano gorritxo bat zeukan, eta oso ongi geratzen zitzaion; hain ongi geratzen zitzaion, jende guztiak Txanogorritxo deitzen ziola.*
*Amak opiltxoak prestatu eta honela esan zion txano-gorritxori:*
*-Joan zaitez amonarengana ondo dagoen ikustera, gaixorik dabilela entzun dut-eta; eramaiozu opiltxo bat eta gurin-ontzitxo hau.*
*Txanogorritxo amonaren etxerantz abiatu zen berehala, beste herri batean bizi baitzen. Basoan barrena zihoala, otso jaunarekin topo egin zuen…..*

**Orain, neskatoei batez ere inoiz kontatu ez diguten ipuina sor dezakezu, orduan printzeari edota ehiztariari itxaron behar izaten genien otsoetatik eta gaiztoengandik libra gintzaten. Orain, ipuina zeurea da. Emaiozu buelta!**

**Escribe tu versión, en euskera o castellano, y hazla llegar a la Casa de la Mujer:**
**C/ Izelaieta nº 12 de Ermua.**
**igualdad2@udalermua.net**

**Te proponemos un nuevo pasatiempos: re-escribir un cuento clásico, cambiar su final… Con los cuentos que recibamos prepararemos una exposición en la Casa de la Mujer. Premiaremos y divulgaremos el cuento "clásico" más igualitario. ¡Anímate! Este ya sabéis de qué va…**

*Érase una vez una niña a la que su abuela le había hecho un abrigo con una capucha roja, y por eso la llamaban Caperucita Roja. ¿¿O sería por otra cosa?? Dicen que su abuelita vivía lejos, junto al bosque y que la madre de Caperucita quiso que la niña llevara algo de comer a la pobre ancianita, que vivía sola y debía estar enferma, en la cama, sin poder levantarse... (a lo mejor es que la abuelita cobraba una pensión tan escasa que no le llegaba ni para pipas, y por eso necesitaba de la ayuda de su hija... ¡vaya usted a saber!). El caso es que mandó a la chiquilla con una cestita con comida y le pidió que no se entretuviera en el bosque ni hablara con personas desconocidas. ¿Por qué pedirán las madres siempre este tipo de cosas a las niñas?. Pues allá que se fue Caperucita, y tuvo la mala suerte de encontrarse con un lobo que le hablaba y que no tenía muy buenas intenciones. ¿Habrá algún lobo majete y enrollado? Al final, como siempre, llega un cazador y parece que lo arregla todo... ¿o no?...*

**Ahora puedes crear el cuento que nunca nos contaron, especialmente a las niñas, que siempre teníamos que esperar al príncipe o al cazador que nos salvara de los lobos y malotes. El cuento es tuyo: ¡dale la vuelta!.**

# Noticias de interés
## ALBISTE INTERESGARRIAK

### >> BIZKAIKO JABEKUNTZA ESKOLEN SAREA IKASTURTE AMAIERAKO JAIA

Gorde data hau, ekainaren 11, Basaurin egingo den jaialdira joateko. Ermuko Emakumeen Topalekuan informazio gehiago emango dizuegu.

### >> "BANDA LAVANDA" Y CONCIERTO TEATRALIZADO "ENSAYO DE SEÑORONAS"

Organizadas por el Dpto. de Igualdad, dos actividades de interés para el público en general: 26 de mayo, en Lobiano, presentación del libro que recopila el programa de "La banda lavanda" desarrollado por la argentina Silvia Palumbo, con bandas de tamboras feministas. El 27 de mayo, en Ermua Antzokia, el concierto teatralizado "Ensayo de señoronas", con Silvia Palumbo, Amanda Heguilen y Angie del Santo, a las 22:15h. Para el concierto están a la venta entradas por 10 €.

### >> NOLA TXERTATU GENERO-IKUSPEGIA HIZKUNTZA-POLITIKAN? LANERAKO MARKO BATEN PROPOSAMENA

Azken urteotan nabarmena izan da soziolinguistika beste jakintza-arlo batzuetako ekarpenekin aberasteko ahalegina, eta euskararen garapenarako gako interesgarriak aurkitu dira bide horretatik. Hizkuntza-plangintza eta hizkuntza-politikak diseinatzerakoan, ordea, oso gutxitan landu dira genero-ikuspegiari buruzko planteamendu sistematizatuak.
Elhuyar Aholkularitza. Dokumentuaren egileak: Joana Arakistain, Goizargi Oruesagasti eta Aizpea Otaegi. 2014ko iraila.

### >> MUJERES VIAJERAS

RTVE ha estrenado el programa "Mujeres Viajeras" donde reconstruye las aventuras extraordinarias llevadas a cabo por mujeres durante el siglo XIX y principios del siglo XX, a través de sus diarios escritos. En sus episodios, narran las historias de mujeres valientes que supieron desafiar a la propia época enfrentándose a empresas propiamente masculinas: escaladas solitarias al Tíbet para llegar a la cima del mundo, viajes por África en canoa, cruzando de incógnito tierras prohibidas…
**http://www.rtve.es/television/20160201/mujeres-viajeras/1294420.shtml**

### >> TRUKE-EGUNAK

Apirilaren azkeneko hamabostaldian hirugarren truke-saioa egingo dugu Emakumeen Topalekuan. Oraingo honetan objektuak edozein motatako poltsak izango dira. Ohikoa denez, lehenengo boltsoak jasoko ditugu (apirilaren 18tik hasita), eta hurrengo astean parte-hartzaile bakoitzak eman duena beste eramateko aukera izango du. Apunta zaitez!

### >> ¿ES LA DIVERSIDAD DE GÉNERO RENTABLE?

Según la investigación publicada por Peterson Institute for International Economics, las compañías que tienen al menos un 30% de presencia femenina en altos puestos ejecutivos tienen un 15% más de beneficios que aquellas que no las tienen. Establece además, la necesidad de fomentar el progreso femenino en toda la estructura corporativa, después de conocer que cerca del 60% de las corporaciones analizadas no tienen mujeres en su junta directiva, más de la mitad tampoco tiene ejecutivas y apenas el 5% está dirigida por una mujer.
**http://www.iie.com/publications/wp/wp16-3.pdf**

### >> KCD ONGD

Nahi izanez gero 2016ko Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren 8. Nazioarteko Jaialdian parte hartzeko aukera duzue. Zuen lanak postaz edo formatu digitalean bidal ditzakezu eta oinarriak KCD-ren web orrian aurkituko dituzue. Epea maiatzaren 15ean amaituko da.
También han puesto en marcha el taller "Cómo hablar en público y ante los medios de comunicación", que se realizará del 22 a 24 de abril, en Bilbao, en castellano.
**KCD-ONGD.**
**Tfno-Fax: 946 024 668**
**www.kcd-ongd.org**




> **Edita Argitaratzen du:**
**Departamento de Igualdad del Ayto. de Ermua**
**Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailak**

> **Redacción Erredakzioa:**
Begoña Fernández, Idoia Carracedo,
Izaskun Rodriguez , Olga Bayón y Eva Carballal.

> **Coordinadora Koordinatzailea:**
Begoña Fernández

> **Realización Egilea:**
La Central B.E.

*Si quieres recibir la revista en tu domicilio, solicítalo en la Casa de la Mujer.*
*Aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, Emakumeen Topalekuan eskatzea besterik ez daukazu.*


*Se autoriza el uso de estos textos siempre que se mencione su procedencia.*
*Testu hauen erabilera baimentzen da, beti ere iturria aipatuz.*


**CASA DE LA MUJER / EMAKUMEEN TOPALEKUA**
Izelaieta kalea, 12 - 48260 ERMUA
Tfnoa: 943 171 030 · E.posta: casadelamujer@udalermua.net · web: www.ermua.es
https://www.facebook.com/#!/igualdadERMUA/?fref=ts


Casa de la Mujer / Ermua Emakumeen Topalekua


Depósito Legal: BI-243/2010